


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a / 613. zenbakia



SAHARA: HIRU TONA JAKI ETA MATERIAL JASO DITUZTE/4 • ARATUSTEAK: JON IRAEGIREN KARTELA/11

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 28**
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- ZAPATUA, 29**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- DOMEKA, 30**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 31**
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63
- MARTITZENA, 1**
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 2**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- EGUENA, 3**
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaltegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariatza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak: 09:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00. |
| Santa Marina
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 13:00. | Angiozar
Domekak: 11:00.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Antzuola
Domekak: 10:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elorregi
Domekak: 10:30. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1979AN JAIOTAKOAK
1979an jaiotakoen bazkaria martxoaren 19an, Txarrantxa jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan, otsailaren 24ra arte. Bazkari egunean 11:00etan elkartuko dira, San Martin plazan.

BEDELKARREN ZOZKETA
Bedelkar herriko dendarien elkarteak Gabonetan egindako zozketan, 13.847 zorbakia 1.000 euroekin izan da saritua. Era berean, ondoko zorbakiek 500 euro bana jasoko dituzte: 7.263, 24.220, 35.369 eta 37.854.

ARANZADI IKASTOLAREN OHARRA
Mondragon Unibertsitatearen eskaintza ezagutzeko bilera izango da astelehenean, hilak 31, Aranzadi Ikastolan, 18:30ean.

ODOL ATERATZEA
Hurrengo odol ateratzea otsailaren 16an egingo dute, Seminarioan, 18:30ean.

JARDUNEN AGENDA

TXAPLIGU TALDEA
Bihar, zapatua, Arrizuriaga itxita egongo da, Txapligu taldekoak Gasteizera patinatzerara joango direlako. Domekan, berriz, eskulanak egiteko aukera izango da Arrizuriagan, 16:00etan hasita.

TXISKRILABI TALDEA
12- 14 urte bitartekoak 16:00etatik 18:00etara elkartuko dira Udal Euskaltegian eta 14- 16 urte bitartekoak, berriz, 18:00etatik 20:00etara Eztabaidak, irteerak, eskulanak, solasaldiak eta beste hainbat jarduera izango dituzte.


URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildik okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarretik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERGARAN

Hondakinen gordailua zabalik San Kristobalen

Hondakinen Gordailu Alternatiboa zabaldu zuten San Kristobal auzoan, Angiozarrera bidean, 1995eko otsailaren 1ean. Hain zuzen ere, Antzuola, Elgeta eta Bergarako partikularrek, dendariak eta industria txikiak zaborra ez diren gainontzeko hondakinak botatzeko zabaldu zuten gordailu hura.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lelotu"



— Azkenian mutikoa lelotu bia dau.

JON IRAEGI

ASTEKO PELIKULAK

'OCEAN'S TWELVE'

ZUZENDARIA: STEVEN SODERBERGH. **AKTOREAK:** GEORGE CLOONEY, BRAD PITT, CATHERINE ZETA-JONES.

HARIA. Ocean bandak hainbat kolpe emango ditu Amsterdam, Paris eta Erroman, eta abentura zirraragarrietan murgilduko dira bandako izar distiratsuak...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan; domekan, 17:00etan. 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

'CONTRA LA PARED'

ZUZENDARIA: FAITH AKIN. **AKTOREAK:** BIROL UNEL, SIBEL KEKILLI, CATRIN STRIEBECK.

HARIA. Cahitek 40 urte ditu, eta psikiatriko batean dago, bere buruaz beste egiten saiatzeagatik. Sibel gazteak, berriz, bere familiarengandik ihes egin nahi du, eta, horretarako, Cahitekin ezkontzea pentsatuko du.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 19:30ean eta 19:30ean

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 25 **4 °C**

MAXIMOA
Eguena, 20 **12 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **62,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	12 °C	6 °C	20,3 l/m ²
Eguena, 20	12 °C	8 °C	2,4 l/m ²
Egubakoitza, 21	11 °C	8 °C	1,9 l/m ²
Zapatua, 22	11 °C	8 °C	0,2 l/m ²
Domeka, 23	10 °C	8 °C	5,3 l/m ²
Astelehena, 24	4 °C	3 °C	12,3 l/m ²
Martitzena, 25	4 °C	1 °C	20,5 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ATREBENTZIAEZPADA/ Elurteei aurre egiteko nahikoa gertatuta gaude?



ROSA OLALDE
60 urte

Askorik ez, baina horrela-ko elurteak gutxitan izaten dira, eta nahiko ongi moldatzen gara. Bolun bizi naiz eta espaloietan gatza bota dutenez ez dut arazorik izan kalera jaisteko.



INES ITURRICASTILLO
39 urte

Baietz uste dut. Eguazten goizean Arrasatera joan nintzen, eta elurra kentzeko makina mordo zebilen. Bidean ere gatza bota dute egunotan. Beraz, ez dut arazorik izan.



MIKEL USABIAGA
44 urte

Munduko diru guztia gastatuta ere ez gara prestatuta egongo. Ez dugu saiatu behar elurra egiten duenean elurra egiten ez duenean bezala ibiltzen. Katerik ez badaukagu bidean geratu eta itxoin.



MIRIAM GURIDI
40 urte

Nahikoa sekula ere ez. Baina nik kanpoan lan egiten dut eta bideak ongi aurkitu ditut joan-etorrian. Aurrekusi egin dugu elurtea eta beste urte batzuetan baino arazo gutxiago egon da.



VICENTE RAJADO
37 urte

Gehienak ez gaude prestatuta. Jendeak ez du ohiturarik kateak autoan eramateko. Errepideetan, beste estatuetan, elur makinak ez ezik beste sistema batzuk ere badaude, hemen ez.



MIRIAM FORTUNA
24 urte

Ez gaude prestatuta. Nire senarra esaterako ezin izan da lanera joan. Errepideetako elurra kendu arren, Toki-Ederretik irten ezin da geratu da kalean zegoen elurrarengatik.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK APARKALEKUAK SOBERAN, ERABILTZEKE Ibarra kalean bizi den herritar batek deitu digu aste honetan. Hark esandakoaren arabera, aste barruan sekulako auto piloa batzen da Labegaraieta kiroldegia ondo aparkalekuan. Askotan autoek traba egiten diote elkarri, eta soluzio erraza du arazoak: Industrialdean aparkatzea, aparkatzeko lekua soberan dago eta han, kiroldegitik oso gertu. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /4

Sahararako laguntza

Sahararako laguntza kanpainak harrera bikaina izan du. Hiru tona inguru jaso dituzte.

KIROLA /8

Espainiako txapelketan

Markel Larrañaga gazte bergararrak Espainiako Karate Txapelketan hartu du parte, Madrilan.

KULTURA /11

Aratusteetako kartela

Jon Iraegi bergararrak gazteak irabazi du Udalak Aratusteetarako deitutako kartel lehiaketa.

ASTEKO DATUA

1.050

TXERTO MENINGITISAREN AURKA

Ikastetxeetan 11 eta 20 urte bitarteko gaztetxoek C meningitisaren aurkako txertoa jaso dute egunotan. Osakidetzak ipini zuen abian kanpaina, eta Bergaran 1.050 txerto eman dituzte.

BESTE EKESANA

“ Ondorioa tortura da. Inkomunikazioak ez balego, torturarik ez legoke. Eta nork inkomunikatzen du? ”

Berriro ere protagonista bera agertzen da, Estatuak. Herriaren izenean egiten du eta ez da partikular batek, taldeak edo bakarrak egiten duen ekintza. Gai honetaz ez al du Gasteizko Gobernuak bere kabuz postura garbia hartzerik? Zergatik baliatzen da lege kriminal horretaz? Hor dauka aukera paregabea, ertzainak bere agindupean ditu; inkomunikazio legea ez bete, eta kamerak sartu atxilotua barruan dagoen bitartean. Ertzaintzaren barne protokoloa erabiltzea aski dela esatea ez da nahikoa (Balza dixit). Hau egiten ez den bitartean hitzak hitz huts. Zurikeria soilik, konplizeak. Eta torturaren degradazioak bere horretan dirau”
ANDRES OSA 'SAKONA' / Kazetaria 'Gara' / 05-01-23

BERAIEK DINOE / Ainhoa Agirreazaldegia



Euskal Herriko hiru probintziak

EITBn Ibarretxe Plana hitzetik hortzera darabilten honetan, Tafallako tabernetan, euskaldunek, abertzaleek, ez abertzaleek, nafarrek, kantabriarrek, espainolek, atzerritarrek edo mundutarrek apenas hitz egiten duten planaz.

Normala. Ze arrazoi daukate, bada, andaluzek baino eurenago sentitzeko plan hori? Mingarria da planaren ausardia eza, ditxosozko Espainiarekiko mendekotasuna, beti bezala arazoaren sustraietara jo ez izana. Mingarria eta susmagarria. Susmagarriki argia.

Nafarroan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan urteetako egoera politiko gogorra hizpide dutenean, Ibarretxe Plana eta honi dagokion geografia dira Euskadi Irratian eguneroko ogi. Mingarria da irrati-telebistaren ausardia eza, ditxosozko EAEREkiko eta Espainiarekiko mendekotasuna, beti bezala sustraien

adarretara ez iristea. Mingarria eta susmagarria. Susmagarriki argia.

Ni, Espainia entzunda, inoiz ez naiz identifikatuta sentitu. Euskadiko Autonomia Erkidegoa entzunda paper-kontuak baizik ez ditut ikusten. Ezin dut EITB jarraitu, ez dutelako

“Gustura jakingo nuke Ibarretxeri Euskal Herria esatean zein mapa datorkion burura”

Artaxonara kazetaririk bidaltzen. Ibarretxeri begiratu, ez dut gure lehendakaria ikusten. Ez da nik botorik eman ez diodalako, arrotza zaidalako baizik. Hendaiako, Barkoxeko, Donapaleuko edo Beireko lagun

asko baino arrotzagoa. Gustura jakingo nuke, ordea, Ibarretxeri Euskal Herria esatean zein mapa datorkion burura. Eta bidenabar esanda, ez dago pertsona bakar baten abizena daraman bake-plan bat baino plan insolidarioago eta prepotenteagorik.

Ibarretxe Plana eta EITB: bi anaiak. Nire gurasoek asmatu zuten ipuina ote da Euskal Herriko zazpi probintziena?

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru,
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia




Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala



Jasotako atuna oliotan, azukrea eta konpresak kaxetan sailkatu eta Donostiara bidaliko dute hurrengo egunetan.

Hiru tona jaki eta material jaso dituzte Sahararako

EDU MENDIBIL

Bergarako Udalak eta Komite Internazionalistak taldeak deitutako Sahararako laguntza kanpainak harrera bikaina izan du. Markos Gabilondo Komiteetako ordezkariak emandako datuen arabera, 2.800 kg inguru jaso dituzte, atuna, azukrea eta konpresak zenbatuta. Astelehen eta eguazten bitartean 10 bat lagun izan dira jasotako materiala kaxetan sar-


tzen. Euskal Fondoak banatutako kaxetan materiala sailkatu ondoren, Donostiara bidaliko dute eta handik Tindouf-en (Aljeria) dauden errefuxiatu sahararren kanpamentuetara eramango dute, otsailaren erdialdean.

Udaleko zein Komite Internazionalistak taldeko ordezkariak eskerrak eman nahi dizkiete kanpainan parte hartu duten guztiei. Oraindik ere dirulaguntza emateko aukera dago, Kutxan

zein Euskadiko Kutxan irekita kontuetan. Jasotako dirua errefuxiatuek behar dituzten ibilgailuak erosteko bideratuko dute. Orain arte 4.000 euro inguru jaso dituzte Bergaran.

ASIARAKO DIRULAGUNTZA

Bestalde, Asiako hego ekialdean izandako itsasikararen ondorioz, kaltetuei laguntzeko 18.000 euroko dirulaguntza ematea onartu Bergarako Udalak.



Herriko ikasleei meningitisaren aurkako txertoa jarri diete

Bergarako 11-20 urte bitarteko ikasleek meningitisaren aurkako txertoa jaso dute egunotan. Gaur, egubakoitza, bukatu dute Osakidetza langileek Bergaran txertoa jartzen. Guztira, 1.050 ikasleri jarri diete meningitis C gaixotasunetik babesteko txertoa. Txanda hartuz gero, Bergarako Osasun Etxean txertoa jasotzeko aukera dago, martxora arte.

San Blas jaiak eguenetik aurrera Murinondo auzoan

E.M.

Eguenean, otsailaren 3an, San Blas eguna ospatuko dute Murinondon. Ohikoa denez, San Blas opilak, ogia eta kandelak bedeinakutako dituzte 11:00etako Meza Nagusian eta jarraian salda eta txorizoa hartzeko aukera izango da auzoko elkarteetan. Azken urteotan jende dezente hurbildu da Murinondora, opilak bedeinkatzera. San Blasko ermita egun guztian egongo da irekita egunean.


Egubakoitzean, hilaren 4an, auzo afaria izango da Murinon-

don eta jarraian erromeria, trikitilariak alaituta.

Santa Ageda egunean, berriz, mus txapelketa jokatu da Murinondoko elkarteetan, 16:00etan. Jai egitarauarekin bukatzeko, otsailaren 6an San Blas Txiki eguna ospatuko dute.

SANTA AGEDA BEZPERA EGUBAKOITZEAN

Santa Ageda bezperan ohikoa denez, egubakoitzean, otsailaren 4an, koplak kantatzera aterako dira herriko hainbat talde eta ikastetxeetako ikasleak, arratsaldean zehar.



San Blas egunez, jende asko elkartu izan da azken urteotan Murinondon.

LABUR

Aranzadi Ikastolako gurasoen entsegua martitzenean, Santa Agedari begira

Aranzadi Ikastolak aditzera eman duenez, ikasleen gurasoek Santa Ageda bezperarako entsegua izango dute martitzenean, otsailaren 1ean, 19:00etan. Telefonica pareko sarrera erabiltzea eskatzen zaie gurasoei.

Tranbiaren trazaketaren gaineko bilera irekia eguaztenean, Aralarrek deituta

Bergarako Aralarrek deituta, tranbiaren trazaketaren gaineko bilera irekia izango da eguaztenean, otsailaren 2an, Kultur Etxean, 19:00etan.

Aralarren partetik Martin Etxeberria eta Iñigo Inurrategi zinegotziak izango dira bertan, herritarrei trazaketaren gaineko argibideak eskaintzeko.

Bihar, zapatua, Andoainera joateko autobus txartelak Batzokian eskura daitezke

Bergarako EAJk bihar, zapatua, Andoainen izango den ekitaldi politikora joateko autobusa antolatu du. Irteera 10:00etan izango da autobus geltokitik eta itzulera, berriz, 14:00etan. EAJk dei egiten die alderdikideei ekitaldian parte hartzeko.

Autobus txartelak Batzokian daude salgai, 5 euroren truke. Interesatuak bertara edo 943 76 47 00 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

KOLEKTOREKOOBRAK



Kolektoreko lanak geldirik, elurra dela eta

Herri barruan egiten diharduten kolektoreko lanak geldirik egon ziren eguaztenean, elurraren ondorioz. Sobrino enpresak ez zuen hormigoia jasotzerik izan eta hori dela eta makinek gelditu egin behar izan zuten.

KRUZ GALLASTEGIKO GARAJEAK

Bordatxo elkartearen ondoan sarrera duten garajeetarako pasoa itxi egingo dute hurrengo astean. Jabeei garaiz esango zaie zein egunetan ezin izango dituzten garajeak erabili.

IBARGARAI, HILABETE BARRU ZABALIK

Sobrino enpresako iturrien arabera, hilabete barru zabalduko da Ibargarai kalea trafikorako.

INFERNUKUAKO PASOA ITXITA

Infernuakuako pasoa itxita jarraitzen du. Kruz Gallastegitik Frontoi aldera eta handik Zurraderora edo Matxiategira jo beharko dute gidariek.

KULTURA/Udal Musika Bandak eta Orkestrak emanaldia egingo dute egubakoitzean

Asian kaltetuen aldeko kontzertua Aratusteetan

E.M.

Begarako Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo dute hurrengo egubakoitzean, hilaren 4an, Udal Pilotalekuan, Aratusteetako egitarauari hasiera emanez. Batutako dirua Asiako itsasikarak kaltetuei laguntzeko bideratuko dute.

Kontzerturako sarrerak 5 eurotan salgai jarriko dira eta Kultur Etxean, Frontoian edo Lazkano oinetako dendan eskuratu ahal izango dira. Esan bezala, batuko den dirua Asiako itsasikarak kaltetutakoei laguntzeko bideratuko dute. Aratusteetako kontzertuan ohikoa den bezala, hainbat sorpresa eskainiko dituzte Banda eta Orkestrako kideak. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

PAILAZOAK ZAPATUAN

Zapatuan, otsailaren 5ean, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia izango da Udal Pilotalekuan, 16:00etan. Sarrerak Kultur Etxean eta Udal Pilotalekuan salgai daude, 4 euroren truke.

Pailazoen emanaldiaren ostean, haurren mozerroen desfilea




ARTXIBOA

Bandak eta Orkestrak egitarau berezia prestatu dute hurrengo egubakoitzerako.

izango da, 18:00etan, eta gauean, The Bond Scott Band eta Lobo Electrico musika taldeekin kontzertua eta mozerro jaia San Mar-

tin plazan. Aratuste-domekan, berriz, *Hamaika koloretan dantza* antzerki musikala izango da Udal Pilotalekuan, 18:00etan.



Marokoko irudiak Ipintzan

Ipintza institutuko kultur astearren barruan, Mikel Uribealgoren eta Joseba Aldanondoren diapositiba emanaldia izan zen astelehenean. Atlasera, Tarhiara, 2003ko Aste Santuan egindako bidaiaren irudiak erakutsi zituzten. Hector Granada eta Bihotz Beristainen argazkiak eta Joseba eta Mikelen azalpenei esker, hango parajeak ikusi zituzten ikasleek. Hainbat ekitaldi izan dituzte astean Ipintzan.

LABUR

Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketako lanak jasotzeko epea apirilaren 8an bukatuko da

Begarako Udalak Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketa deitu du. Hain zuzen ere, ipuin, bertso, komiki eta ipuin kontaketa edo antzerki kategoriak deitu ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenei zuzenduta dago. Lanak aurkezteko epea apirilaren 8an bukatuko da.

Internet hasiera ikastaroak antolatzen dihardu Irizar jauregiako KZguneak

KZguneak Internet hasiera ikastaroak antolatzen dihardu. Hurrengo ikastaroa otsailaren 7an hasiko da. Goizeko txanda 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean egin nahi dutenendako, 18:00etatik 20:00etara. Edozein argibidetarako 943 76 73 24 telefono zenbakira dei dezakezue.

KZgunearen ordutegia honako hau da: aste barruan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara dago zabalik.

Eguneko menuak!

ZUHAIZTI
taberna

Astelehenetik ostiralera
eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

ELKARRIZKETA

MIREN AMOR/UDALEKO GIZARTE ONGIZATE ZERBITZUKO PREBENTZIORAKO TEKNIKARIA

“Gurasoen intereseko gaiak jorratzea da gure helburua”

EDU MENDIBIL

Gizarte Ongizateko Prebentzio Sailak *Aurrera Begira* aldizkariaren bigarren zenbakia kaleratu du dagoeneko. 2 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago aldizkaria. Miren Amor teknikariarekin egin dugu berba.

Zein da kaleratzen duzun aldizkariaren helburua?

Prebentziorako Sailetik, gurasoen esparruan prestakuntza eta informazioa lantzen ahalegintzen gara, eta informazioa hobetzeko aldizkaria ateratzea pentsatu genuen. Gurasoen interesekoak izan daitezkeen gaiet buruzko informazioa ematea da helburua,

eta euren izan ditzaketen zantzak ahal den neurrian argitu.

Zeintzuk dira gai horiek?

Gurasoek euren planteatzen dizkigutenak edota gurasoen artean komentatzen direnak. Azken zenbakian, esaterako, 0-5 urteko adinekoei eskainitako sailean, kasuak gaia plazaratu dugu, 6-11 bitartekoetan teknologia berriak eta 12-18 urtekoetan lagunen arteko harremanak nerabezaroan.

Nora jotzen duzue argibide eske?

Gurasoen galderak edo zantzak jaso ondoren, profesionalentara jotzen dugu: psikoterapeutak, psikologoak, pedagogoak....

Heziketaren barruan, zer dira Guraso Eskolak?

Ikastetxeen bitartez gurasoe-

kin harremanetan gaude eta hamar saioko eskolak antolatzen ditugu, ikasleen gurasoei zuzenduta. Aste Santua bitartean Lehen Hezkuntza eta DBHkoekin izango gara lanean.

Gazteen artean drogen kontsumoa izan zenuten aztergai udazkenean. Bergaran dagoen kontsumoaren gaineko daturik badaukazue?

Azken datuak 2000koak dira, Siadecok eginiko azterketakoak. Jaurlaritzaren datuak aztertu genituen jardunaldiotan, Bergararako ere baliagarriak direla koan. Kalamuarekin bezala, goranzko joera ikusten da sustantzia guztietan, opiazeoetan izan ezik. Bestalde, kontsumoak gero eta gazteago hasten dira.



Bixente Iburguren La Platako 'Etorkin Ospetsua' izendatu dute

Bixente Iburguren bergararra Argentinako La Plata hiriko *Etorkin Ospetsua* izendatu dute. Urteak daramatza Iburgurenek Argentinan eta aski ezaguna da han bizi diren euskaldunen artean. La Platako Euskal Etxeko presidente izandakoa da. Argazkian, Bixente Iburguren Maruxa emaztearekin, 2000ko apirileko irudi baten.

LABUR

Tranbiaren trazaketaren gaineko alegazioak otsailaren 15era arte aurkezteko aukera

Bergarako udaletxean Bergaratik Eskoriatza bitartean tranbiak izango duen trazaketa dago ikusgai. Herritarrek otsailaren 15era arte izango dute alegazioak aurkezteko aukera. Udalak bi hilabete izango ditu dagozkion alegazioak egiteko.

San Joxepe elkartekoek zuzendaritza berritzeko deia egin diete bazkideei

San Joxepe elkarteko zuzendaritzako kideek apirilera zuzendaritza berritzeko asmoa azaldu dute. Hori dela eta, bazkide guztiei laguntza eskatu nahi diete. Zuzendaritzan parte hartu nahi duten bazkideen otsailaren 28a baino lehen eman behar dute izena. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

Otsailean odol ateratze bakarra egingo dute, hilaren 16an, Seminarioan, 18:30ean

Begarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, otsailean odol ateratze bakarra egingo dute; otsailaren 16an egingo dute, Seminarioan, 18:30ean hasita.

Martxoan, berriz, hiru odol ateratze izango dira: hilaren 2an, 16an eta 30ean.

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidrieren margolanak
- ▶ Imitazioak

margolan
m a r g o a k

Sagasta auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Tartufo Jatetxea

San Valentín ospatzen!

Otsailaren 12an, zapatua,
afaria eta diskoteka

Mahaia aldeztu aurretik gordetzeko: 943 76 35 51

San Juan auzoa, Elgetarako bidean, Bergara

MINGAINARITIRAKA



Mikel Mendizabal

IGERILEKUKO SOROSLEA

Azkoitiarra da Mikel eta hantxe bizi da, baina dagoeneko hiru urte daramatza Bergarako igerilekuan lanean. 26 urte dauzka eta Heziketa Fisikoko ikasketak egin zituen Gasteizen. Igerilekuko soroslea da eta igeriketa eskolak ere ematen ditu.

Azkoititik etorri zara gaur goizean. Elurrik topatu duzu?
Ez; garbi zeuden errepideak; normalean, Azkaratetik etortzen naiz. Espero dut itzultzerakoan ere elurrik ez izatea.

Eguraldi hotz honekin, jendea etortzen da igerilekura?

Bai, betikoak beti etortzen dira.

Aukeran, itsasoa ala igerilekua?

Igeri egiteko, itsasoa; sorosle moduan lan egiteko, berriz, igerilekua, itsasoan arrisku handiagoa dago eta.

Sorosle lanean, jendea salbatu beharra tokatu zaizu?

Ez; umeren batzuk, larrituta, uretatik atera beharra, bai, baina, inor salbatu beharrik ez.

Igeriketa eskolak ere ematen dituzu. Zer nahiago duzu?

Eskolak ematea; batetik, sorosle lana aspergarriagoa dela, eta bestetik, irakasle lana gustuko dudalako.

Aldatzekotan, zertan lan egin nahi zenuke?

Kirolarekin lotutako zerbaitetan; irakasle, futboleko entrenatzaile edo horrelako zerbaitetan.

Zuek ere deseatzan egongo zarete igerileku berriak estreinatzeko, ezta?

Alde batetik, bai, baina, hemen ere ez gaude gaizki. Gainera, berrian ez dakigu guk jarraituko dugun lanean.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Kirola egitea; neska lagunarekin nekazal turismo etxe batera joatea ere plan polita da niretako.

Ze kirol egiten dituzu?

Azkoitiko futbol taldean jokatzen dut; igeri egitea, mendira joatea eta palan eta pilotan aritzea ere gustatzen zait.

Kolore bat?

Berdea.

Usain bat?

Kipulak oliotan erretzen dagoenean ateratzen duena.

Urtaro bat?

Udaberria.

Amets bat?

Euskal Herrian bakean bizitzea.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Zigor Martinez

KUBA / 2000ko uztaila

Bizpahiru hilabeterako Kubara joatea erabaki nuen orain dela lau urte; hilabetez klarinete eskolak jaso nahi nituen hantxe eta gainerako denboran Kuban zehar bidaiatu. Azkenean, baina, nire asmoak hutsean geratu ziren; izan ere, joan nintzenez ez nekien bisatuak gehienez bi hilabeterako balio zidala eta hegaldiekin ere arazo batzuk izan nituen, hilabete eta erdi besterik ez nuen egin Kuban.

Bergarako lagun batek Habanan lagunak zituenez, euren etxera joan nintzen lehendabizi. Gero, zortea izan nuen eta Vedado auzoan logela bat topatu nuen oso merke; bainugela eta sukaldea ere banituen. Irakasle partikular bat topatu nuen eta harmonia eta klarinete eskolatan hasi nintzen. Etxe hartan, gainera, musikari bat zegoen, mutil gazte bat, eta oso ondo konpondu nintzen berarekin.

Egia esan, asko ikasi nuen musikaren gainean; izugarriko erritmoa dute kubatarrek, sen berezia dutela dirudi. Gauero Malekoira joaten nintzen eta hantxe musikari batzuen lagun egin nintzen. Musika taldetxo bat zuten eta turistek dirua ematen zieten. Turistarik ez zegoenean, eurekin egoten nintzen, ikasten; marakak jotzen, behintzat, ondo ikasi nuen. Hona itzuli nintzenez konturatu nin-




“Hilabete eta erdi egin nuen Habanan klarinete eta harmoniako eskoletan”

“Konturatu nintzen kubatarrek erritmo berezia dutela, eta nik ere zerbait ikasi nuen horretaz”

gutzu ondoren, beste giro zeharo ezberdin bat eza-gutzeko aukera izan nuen.

Itzultzeko gogoarekin geratu nintzen, eta nik uste dut laster joango naizela berriro...

AINZANE IRIZAR



Gauero Malekoira joaten zen Zigor, hango musikariekin egotera.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ELKARRIZKETA

MARKEL LARRAÑAGA/ KARATEKA

"Esperientzia ederra izan da Espainiako Txapelketan lehiatzea"

EDU MENDIBIL

Euskadiko selekzioa ordezkatzuz, Markel Larrañagak (17 urte) Espainiako Karate Txapelketan parte hartu zuen aste bukaeran, Madrilan. Kadete mailan, 75 kilotik azpikoekin batera lehiatu zen Markel.

Pozik Madrilan lortutakoarekin?


Bai. Helburu nagusia Espainiako Txapelketara joatea zen, eta behin han egonda onena ematen saiatu naiz. Hala ere, aurkari gogorrek egokitu zitzaizkidan; bi kumite edo konbate izan nituen, eta ondoren bigarren eta hirugarren postuak eskuratu zituztenen aurka galdu nuen. 4. eta 8. bitarteko postuetan sailkatzea lortu nuen. Esperientzia ederra izanda eta Madrilan ikusitakoa ikusita gogo handiagoarekin etorri naiz karatean jarraitzeko, nire maila hobetzeko.

Beste komunitateen aldean, zein mailatan dago Euskadi karatean?

Maila ona dago gurean, baina fitxa kopuruari dagokionez zaila da adibidez Madrilan parekatzea. Euskadiko selekzioan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako karatekak ari gara eta hor ere bada aldea: Gipuzkoatik bi lagun besterik ez gara joan. Kontua da Bizkaian 12 urterekin hasten direla gaztetxoak kumiteetan eta Gipuzkoan 14 urtera arte ezin dela hori egin. Bi urte gehiagoko esperientzia hori nabaritu egiten da gero, eta gipuzkoarrok zailagoa daukagu selekzioa heltzeko.

Aurten denboraldi biribila egin duzu, ala?

Bai, Euskadiko Txapelketan lehen postua eta Gipuzkoakoan bigarrena eskuratu ditut. Espainiako Txapelketan ere asko gozatu dut. Orain suabeago entrenatuko gara...



E.M.

"Bizkaian Gipuzkoan baino bi urte lehenago hasten dira kumiteetan, eta nabaritzen da hori"

Entrenamenduak ala txapelketak nahiago?

Entrenamenduak gogorragoak izaten dira. Astean hiru egunez entrenatzen naiz, eta zailagoa da entrenamenduetan motibatzea, nahiko lan indibiduala delako.

"Abiadura eta teknika landuz gero, indar handiagoa duen bati irabazteko modua dago"

Zer behar da karatean ari ziteko?

Oldarkortasun puntu bat beharrezkoa da, baina abiadura eta teknika landuz gero, indar handiagoa daukan bati irabazteko modua dago.

Gazte mailako futbol taldeen partiduak aste bukaeran

E.M.

Aste bukaeran sei futbol partidu jokatu dira Ipintzan. Gazte mailako bi taldeek etxean jokatu dute: lehen taldeak Soraluze hartuko du zapatuan eta bigarren taldeak Kostkas izango du bisitari.

Gazte mailako lehen taldeak sendo dihardu ligan. David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristainen mutilak lider ditugu. Aste bukaeran bigarren itzulerari ekin zioten eta San Ignacio taldeari 1-6 irabazi zioten, Donostian. Bihar, zapatua, Soraluzeren aurka neurtuko dituzte indarrak, 18:00etan.

Hurrengo jardunaldian, berriz, bigarren postuan dagoen Orioko taldeari egingo diote bisita bergararrek. Orain arte jokatutako 18 partiduetatik bakarra

galdu dute bergararrek. Eloy Crespo (20 gol), Ander Macho (18) eta Ibon Leibar (16) ditugu taldeko golegile nagusiak.

IGOERA FASEAN

Bigarren taldeak, berriz, Kostkasen aurka jokatu du domekan, 11:30ean. Juan Carlos Gomez de Segurak zuzendutako taldea igotera fasean ari da: lehen partidua galdu egin zuten Antzuolan, 2-1.

Aste bukaeran beste lau partidu izango dira Ipintzan: zortzinako futboleant, nesken taldeak Eibartarrak taldearen aurka jokatuko du zapatuan, 10:00etan, eta jarraian infantil mutilen taldeak Aloña izango du bisitari, 11:30ean. Zapatu arratsaldean, kadete mailako Bergara eta Antzuolako taldeak izango dira aurrez aurre, 16:00etan. Azkenik, ohorezko kadete taldeak Texas Lasartearra hartuko du domekan, 10:30ean.



ARTXIBOA

Zortzinako futboleant, neskek Eibartarrak taldearen aurka jokatuko dute zapatuan.

TXIRRINDULARITZA

Aurtengo lizentziak berritzeko epea astelehenean, hilaren 31n, bukatuko da

Txirrindularitza lizentzia berritzeko epea astelehenean, hilaren 31n, bukatuko da. Interesatuak 92 euro ordaindu beharko dituzte Kutxan eta ondoren, ordainagiria Biciprecision Igartua edo i2 kirol dendetara eraman.

ESKIA

Pol-Polen eskutik eskiatzera joateko irteerak izango dira hurrengo hilabeteetan

Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta, hurrengo hilabeteetan eskiatzera joateko irteerak izango dira: otsailaren 25etik 27ra For-migalera, martxoaren 4tik 6ra Baqueirara eta martxoaren 25etik apirilaren 2ra Alpeetara (tokia zehazteke dago oraindik).

Edozein argibidetarako Pol-Poleko bulegora edota 943 76 48 51 telefonora jo dezakezu

TRIATLOIA

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldea denboraldirako lizentziak egiten hasi da

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldea hasi da denboraldia gertatzen. Taldera hurbildu nahi duten guztiek 660 52 95 16 telefonora (Aitor Rementeria) dei dezakete argibide eske.

Duatloi eta triatloi denboraldi berrirako lizentziak berritzen hasita dira triatloizaleak.



Soluciones Informaticas

Mintegi 5, behea (Toki-eder)
20570 Bergara
Tel.: 943 76 48 59

ZABALDU BERRIA

IKASTARO PERTSONALIZATUAK

- Windows
- Word
- Excel
- Access
- Powerpoint
- Msproject
- Internet
- Mekanografia
- eta abar

- Ekipo informatikoak eta konfigurazio pertsonalizatuak dituzten osagarriak salgai
- Konponketa eta mantentze-lanak
- Sare informatikoen instalazio eta konfigurazioa (Internet, Intranet, etab.)

ESKUBALOIA

Gazte mailako nesken taldeak Leitzaran liderra hartuko du bihar

Euskadiko Ligan diharduen Bergarako taldea, Basauriren kontra zapatuan, 17:45ean

E.M.

Gazte mailako nesken taldeak eta lehen senior mailakoak etxean jokatu dute zapatuan. Bi taldeen egoera guztiz ezberdina da: neskek sailkapeneko goialdeko postuetan diren bitartean, senior mailako mutilak azken postuetatik ihes egiteko borrokan daude.

Ibai Otxoak eta Ander Alvarezek zuzentzen duten taldeak denboraldi bikaina egiten dihardu: hirugarren postuan dira sailkapenean. Orain arte jokatuak hamar partiduetatik zazpi irabazi, bat berdindu eta bi galdu dituzte. Joan den zapatuan Ereintzari irabazi zioten etxetik kanpo, 19-20.

Bihar, zapatua, Leitzaran liderraren bisita jasoko dute kiroldegian, 16:10ean. Horren ondoren, senior mailako mutilen taldeak Basauriren aurka jokatu du, 17:45ean hasita. Liga amaitzeko 12 jardunaldiren faltan, sailkapeneko azken tokian dira bergararrak.



Lehen senior mailako taldeak beharrezkoa du bihar Basauriri irabaztea.

PILOTA PARTIDUAK GAUR

Pilotari dagokionez, Udaberriko Txapelketako hiru partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasiko den jaialdian. Bergara KE ordez-

katuz, kadete, gazte eta bigarren senior mailako bikoteak arituko dira. Horren ondoren, Euskal Ligaren barruan, lehen senior mailako bikoteak Amurrioren aurka jokatu du.

Igeriketa ikastaroak Udaleko Kirol Zerbitzuaren eskutik

E.M.

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, adin guztietako jendearendako igeriketa ikastaroak izango dira Agorrosingo igerilekuan. Eskola gehienak aste bukieran izango badira ere, hasiera eta hobekuntza mailako eskolak aste barruan hartzeko aukera izango da: hobekuntzako eskolak martitzen eta eguenetan izango dira eta hasiera mailakoak, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan. Interesatuak aukera izango dute ordutegi zabal baten

artean aukeratzeko. Mailaren arabera, hamar orduko edo 20 orduko ikastaroak proposatzen ditu Kirol Zerbitzuak: Prezioari dagokionez, bazkideek eta bazkide ez direnek tarifa ezberdinak izango dituzte, eta langabe, etxe-koandre eta erretiratuendako eskaintza bereziak daude. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefonoan.

Udalak aditzera eman duenez, herriko kirol txartela zein Debagoieneko kirol txartel bateratua egiteko aukera dago Kirol Zerbitzuan bertan.



Igeriketa eskolak aste barruan zein aste bukaeretan hartzeko aukera izango da.

FOTOKIROLA



LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: All Blacks-Canalejas Mongat.
10:30: Mongaburrak-De Resaka All Blacks

DOMEKAN, KANPOAN

10:30: Kalaveras-Komando Pipe, PDS
11:30: PDS-FAC Pirulot.
12:30: Niu Tim-Pirulotarrak, Fac

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-KMP Canalej.
10:30: Egurre-Canalejas Errotag.
11:30: Agirrebeña-Errotagain Belengua
12:30: Belengua-Ganbara. Agirreb.
16:00: All Blacks-Kalaveras. Irubide
17:00: Irubide-Arrano. Kalaver.
18:00: SDTNT-PDS. Pagome.
19:00: Pagomendi-Bayer. A Ze Fla.
20:00: A Ze Flaxa-Brescia. Brescia

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Fit Autom.-Cosa Nostra. . . C. Nostra

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

BOLU SUKALDEAK



2000
eguneko
garantia.
Aurrekontua
konpromiso
gabe.



Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

KARTEL LEHIAKETA/ Guztira 20 lan aurkeztu dira aurten

Aratusteetako kartel irabazlea Jon Iraegik egin du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aratusteak datorren asteburuan izanik, jadanik ezaguturazi dute zein den aurtengo kartel irabazlea. Jon Iraegiren lana aukeratu du epaimahaia eta kartel horrekin Aratusteetako egitarauaren azala egingo dute. Guztira 20 lan aurkeztu dira lehiaketara.

Jon Iraegi Otaegi 27 urteko gazte bergararrak irabazi du Aratusteetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa.

Epaimahaia BEART Bergarako Margolarien Elkarteko eta Pol-Pol argazki elkarteko kideek osatu dute. Epaimahaikoek 20 lanen artean aukeratu dute kartel irabazlea. Irudia herriko etxe guztietara iritsiko da; izan ere, Aratusteetako egitaraua etxez etxe banatuko dute, eta egitarau horren azala egiteko erabiliko da Jon Iraegiren kartela. BERRIGARAKO kolaboratzailea da Jon.

LAN INTERESGARRIAK

Kultura teknikari Maider Osak esan digunez, "bergarrek oso lan interesgarriak aurkeztu dituzte lehiaketara".


Teknikak ere askotarikoak izan dira, Maiderren esanetan: "Ordenagailuz egindako lanak jaso ditugu, baita pintzelez egindakoak ere. Gaztetxoek, batez ere, eskuz egindako kartelak egin dituzte".



Jon Iraegik pailazoan irudiak erabili ditu kartela osatzeko.

Parte-hartzaileen artean, Maider Osak esan digunez, 16 urte inguruko ikasleak asko izan dira. Gainontzekoak, berriz, diseinurako zaletasuna dutenak.

Epaimahaikoek esanetan, "kartel irabazleak oso diseinu landua du, koloretsua da eta originala". Jon Iraegik 300 euroko saria jasoko du ordainetan.



Pello Alberdi pintore elgetarraren lanak ikusgai Nahikarin

Urtarrilaren amaierara bitartean Nahikari tabernan Pello Alberdi pintore elgetarraren lanak erakusketa izango da. Aurrez ere izan da aukerarik bertan Pelloren lanak ikusteko. Oraingoan, hamairu lan ekarri ditu, olio zuriarekin egindako hamairu hiri-paisaia, hain zuzen ere. Alberdik bakarka zein taldean egin ditu erakusketak, eta baita hainbat sari eskuratu ere. /I.A.

KULTURAPILULAK

Genealogiari buruzko hitzaldia egingo du martitzenean F. de Borja Aginagaldek

Bergara, Historia Topagunia hitzaldi sorten barruan, datorren martitzenean, otsailaren 1ean, F. de Borja Aginagalderen berbaldia izango da. Hitzaldia 19:30ean egingo du Migel Altuna ikastetxe areto nagusian. *Zergatik da hain dibertigarria genealogia?* izenburupean, besteak beste, genealogiak giza historia ulertzeko duen balioaz hitz egingo du. Gainera, Bergarako genealogiaren gaineko hainbat bitxikeria ere izango ditu hizketarako gai.

Kauta, Keike eta Rotten Teenagers taldeen kontzertua gaur gauean Jam aretoan

Kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Jam Aretoan. Kauta, Keike eta Rotten Teenagers taldeek jardungo dute bertan. 20:00etan irekiko dituzte areto ateak eta Rotten Teenagers taldearen doinuak entzungo dira lehenengo. Ondoren, Kauta laukote andoaindarraren metal hiper-melodikoa izango da. Amaitzeko, Ondarroako Keike boskoteak rock doinuak eskainiko ditu. Kontzerturako sarrerak sei euro balio du.

Hemorragia, Kalaña eta Desprezio taldeen kontzertua bihar gauean gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua izango da 22:30ean gaztetxean. Debaiko Hemorragia taldeak jardungo du lehenengo; Soroluzeko Kalaña punk taldeak gero; eta azkenik Eskoriatza eta Arrasateko Desprezio taldeak. Bestalde, Bergarako Aby-Kem (lehen AK 47) taldeak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian joko du gaur, barikua, beste hainbat talderekin batera. Kontzertua 22:30ean izango da.

San Paulo jaietan hainbat ekintza izango dira asteburu honetan Ubera auzoan

Martitzenean hasi ziren San Paulo jaietako ospakizunak Uberan, eta asteburuan ere izango da ekintzarik. Gaur, barikua, bakailao jana egingo dute elkartean. Zapatuan, patata tortilla lehiaketa egingo da 10:00etan auzokoendako. 16:00etan, mus txapelketa egingo dute nagusiek eta umeendako kukaina egongo da. Ondoren, guztientzako txokolate jana 18:00etan. Domekan 12:00etan meza izango da eta ostean, dantza eta trikitixa emanaldiak.

Jürgen Wolf alemaniako organo jolea bihar San Pedron

I.A.

Organo Erromantikoaren zikloaren hirugarren kontzertua entzungo dute bihar, zapatua, San Pedro parrokiara gerturazten diren zaleek.

Emanaldia 20:00etan hasiko da eta organoan Jürgen Wolf alemaniarrek jardungo du.

Heidelberg eta Vienan Organo eta Musika ikasketak egindakoak, 1993an Leizipeko San Nikolas elizako organo jole izendatu zuten. Orkestra zuzendari eta musika sortzaile ere bada.


Organoa joz kontzertu asko eman ditu Wolfek Amerikan, Japonian eta Ukrainan, besteak beste. Horrez gain, irratietarako eta filmetarako grabaketak egin ditu interpretazio kontuan maisua den organo joleak.

SEI PIEZA

San Pedroko emanaldian sei pieza joko ditu: Bachen *Kalejira eta Fuga*; Bernardo Storaceren *Baleta*; Naji Hakimen *Sinfoniaren*

Amaiera Hiru Mugimendutan; Jehan Alainen *Lorategi zintzilikatua*; Johann Kaspar Kerlleren *Kukuaren Gaineko Capriccioa*; eta Bachen *Tocatta eta Fuga*.

Organo zikloaren azken emanaldia otsailaren 5ean izango da. Coro Saenzek joko du pianoa eta Migel Etxepare izango du lagun tronpetarekin.



Jürgen Wolf organo jolea.

BERRIGARA



HARMAILATIK

Debagoieneko Kirola Goiena Telebistan



**Ikusiko
duzu!**

Astelehenetan

21:00ean eta 22:00ean GOITBn

Aurkezlea: Julen Iriondo

GUREGAIK/ PIROPO LEHIAKETA

Gazteak, piropoak euskaraz idazten

IRATI AGIRREAZALDEGI

Zure burua kaleko poetatzat baduzu; pareko obretako igeltseroen piropo kaxkarrekin aspertuta bazaude... Hau da zure trebezia erakusteko aukera. Izan ere, gazteendako piropo lehiaketa abian da.

Urtxintxa Eskolak eta Ttakun Elkarteak gazteei zuzendutako Piropo Lehiaketa antolatu dute. Bi elkarre horiek egoera informalean euskarazko lagunarteko erregistroa sustatzeko egiten dute lan. Lehiaketa lan honen baitan proposamen berria da.

Otsailaren 19ra arte 18 urte bitarteko gazteek www.aisia.net/webgunera euren piropoak bidal-

tzeko aukera izango dute. Proposamen guztien artean hautaketa batzorde batek hamar piropo aukeratuko ditu. Piropo lehiaketaren irabazlea webgunean sartzen direnek botoa emanaz aukeratuko dute hamar horien artean.

Lehiaketaren oinarriak webgunean ipini dituzte eskuragarri: www.aisia.net/piropo/oinarriak.htm.

SARIAK

Lehiaketaren irabazleak Gorliko aterpetxean zortzi lagunendako asteburuko egonaldia jasoko du saritzat. Bestalde, piropo irabazlearekin diseinatutako 20 kamiseta ere emango dizkiote lagunartean banatzeko.



Neska-mutilek elkarri esateko moduko piropoak idatzi beharko dira.

LOTSABARIK/ Ane Artzamendi

“Laguntzeko gertu egotea estimatzen dut”

E.M.

Kalean elurra ari zela, gorroa eta txamarra lodi bat jantzita eta aurikularrekin etorri zaigu, *La Fuga* taldea entzuten. Gaur, egubakoitza, ikaskideekin afaldu eta parrandatxoia egingo duela esan digu Anek.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Zinea. Eta igerilekua martxan jarriko nuke.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Jarduneko pegatina eta nik idatzitako gauzak dauzkat karpetan.
- Telebistako saioren gorrota-

garriena? Eta gustukoena?

- Salsa rosa* ezin du jasan. Gustukoena, *CSI*.
- Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?
Maria San Gil, PPkoa. Bestalde, Iker Lastra ETB-2ko *Buen rollito* saioko aurkezlea atsegin dut.
- Zerk amorratzen zaitu?
Jendea gezurretan ibiltzeak.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Alaitasuna eta laguntzeko gertu egotea.
- Zer ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Familiari eta lagunei.
- Zure bertute bat? Eta akats bat?

Jeneralean lagunei laguntzeko gertu egoten naiz; akatsa, berraberi egiten dudala eta azkar haserretzen naizela.

- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Jaietan, tabernetan. Hala ere, ez da erraza, e?
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Lagun on bat, entzuten dakiena.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Lagunen batekin, Kataluniarra.
- Etorrizunarako amets bat?
Lan on bat topatzea, ez da erraza eta. Batxilergoa bukatutakoan medikuntza ikasteko asmoa daukat.



ADINA: 15 urte • **IKASKETAK:** DBH, 4. maila • **ZALETASUNAK:** Musika, bertsoak, lagunekin irtetea • **LIBURU BAT:** Harry Potter-en edozein • **FILM BAT:** *El sexto sentido* • **MUSIKA TALDEA:** Sociedad Alkoholika • **KIROL TALDEA:** Athleticen nesken futbol taldea

ABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez



BONOFOTOA



Ze plazari begira dago Moiua Barrena etxeko leiho hau eta ze kaletan Zuloaga etxeko armarria?

GALDEDEBALDE

1.

Zein izen du Udaleko Gizarte Ongizateko Prebentzio Sailak kaleratutako aldizkariak?

- A/ Haizea.
- B/ Udal Aldizkaria.
- C/ Aurrera Begira.

2.


Zein mailatan lehiatu da Markel Larrañaga Espainiako Karate Txapelketan?

- A/ Kadete.
- B/ Gazte.
- C/ Senior.

3.

Nor izan da Udalak deitutako Aratusteetako kartel lehiaketako irabazlea?

- A/ Pello Alberdi.
- B/ Jon Iraegi.
- C/ Aloña Muñoz.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANDER ARANBARRIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ander! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: Domingo Martinez de Irala, "Capitan Vergara". / Galde debalde: 1-B, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Mendisol ekilore-olioa

Litro bat

0,79 €

131 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Xabier Maria Munibe plaza

Azkoitiko zaldunak Bergaran elkartu ziren, 1627ko irailaren 14an

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

EDEL TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motako Amilla egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Ikasleen jaialdia institutuan, 1979

Gaur, egubakoitza, jaieguna izango dute herriko ikasleek. Bergarako Batxilergo Institutuko argazkia ekarri dizuegu oraingo astean, gaurko egunez Aquinoko Santo Tomasen omenez ospatzen zuten jaialdia gogora ekartzeko.

Argazkia orain dela 25 urtekoa da, 1978-79 ikasturtekoa, hain zuzen ere. Orain dela 25 urte Institutuko ikasketak bukatu zituztenek bihar, zapatua, afaria egingo dute Angiozarren, Taberna Zaharra jate-txean. Izango dute bai zer gogoratu...

Esan bezala, 1979ko Santo Tomas egunean institutuan egindako jaialdia duzue albokoa. Sasoi hartan *Grease* filma modan zegoen orduko gazteen artean, eta filmeko protagonisten antzera jantzita atera ziren ikasleak taula gainera.

Ezkerretik eskumara:

Zutik: Patxi Palomares, Ruth Bolinaga, Valen Moñux, Juanjo Lopez, Montse Otazua, Jabier Otazua, Joseba Gabilondo, mahai gainean Luis de Pedro (*Travoltarena* egiten), Iñigo Korkostegi, Susana Sampietro, Joseba Leturia, Agurtzane Arriola, Encarna Martinez (erdi ezkutatuta), Mikel Agirregabiria, Argiñe Sagastume eta Idoia Urrutia.

Aurrean makurtuta: Francisco Javier Roige eta Ane Miren Lizarralde.



Argazkia: Valen Moñux

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75



Irrintzi kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

MP Silvestre Muñoz, s.l. pinturak

Pintura-lanak
orokorrean

Pintura industrialia

Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09



EL CARMEN

GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak

Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a / 220. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Haurtzaindegia astelehenean, hilak 31, irekiko dute eta bost ume hasiko dira

AINZANE IRIZAR

Astelehenean, hilak 31, zabalduko ditu ateak haurtzaindegiak. Inaugurazio ekitaldia aurrerago egiteko laga dute, Eusko Jaurlaritzako arduradunek ezin izan dutelako oraingo asteburuan etorri. Momentuz, bost ume hasiko dira haurtzaindegian.

Pasa den astelehenean haurtzaindegiko altzariak jartzen hasitakoak ziren, baina, elurrarengatik, ezin izan zituzten altzariok ekarri. Tuteratik kamioi handi baten ekartzekoak ziren.

Dena dela, Udaleko arduradunek asteotan adierazi digutenez, lehenago ezin baldin badute etorri, asteburuan prestatuko dute haurtzaindegia, eta astelehenean, hilak 31, zabalduko dituzte ateak.

Inaugurazio ekitaldi ofiziala, berriz, aurrerago egiteko laga dute; izan ere, oraingo asteburuan egitea nahi zuten arren, Eusko Jaurlaritzako arduradunek ezin izan dute etorri.

BOST UME ETA BI HEZITZAILE

Momentuz, bost umek besterik ez du eman izena haurtzaindegian.



Abuztu bukaeran ekin zieten haurtzaindegia eraikitze lanei.

Dena dela, hogeitabat umerendako tokia dago: 0 eta urtebete bitarteko umeendako gelan, zortzi ume hartuko dituzte, gehienez; urtebete eta bi urte bitarteko umeendako gelan, berriz, hamabiderendako tokia dago.

Bost ume horiek bi hezitzaile izango dituzte; urtarril hasieratik dihardute lanean hezitzaileok, euren lanerako prestatzen. Herri Ikastetxea arduratu da hezitzaile horien prestakuntza kudeatzeaz.

GEHIENEZ, ZORTZI ORDU

Haurtzaindegia zabalik egongo da, astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 18:30era. Ume bakoitzak, baina, gehienez, zortzi ordu pasatu ahal izango ditu haurtzaindegian.

HERRITARREN HITZA / Iraia Gabilondo • Ikaslea

Beraz, zer?

Koadrilako hamarri, Zuberoa aldera joatea otuzitzaigun. Hau posible izan zedin aurretiko lanak egin behar dira; adibidez, eraman beharreko janaria erosi....

Harategi batera sartu eta gure poztasuna ezin gorderik genbiltzan, hizketan eta barrezka; momentu horretan, 65 urte inguruko emakume bat sartu zen harategira. Gaizki begiratu gintuen eta izugarriko iskanbila sortzen ari ginela, hura ez zela gaztetxe bat, esan zigun. Hirurok harriturik geratu ginen, baina, ez genuen ezer esan. Egin beharrekoa egin eta alde egin zuen besterik

gabe. Ez genekien zenbat urdaiazpiko edo zenbat solomo eraman beharko genituen hamar pertsona asetzeko. Harategi horretan ez geunden bakarrik. Ondoan genuen amonaxoak gure arazoaren berri izatean; gomendio bat eman zigun eta kanpoan eman behar genituen egun haiek ondo pasatze-ko, gazteak ginela eta orain aprobeatxatu behar dugula. Amonaxoari eskerrak eman



"Beraz, zer? Gazte denok txarrak eta zaharrago guztiak onak?"

zen; nahiz eta gu izan lehenak geltokira iristen, azkenak izan ginen autobusean sartzen,

eta gomendaturikoa erosi ondoren, aurretik beste emakume hark kendu zigun irribarra berritua ezpainetan genuela ateratzen ginen.

Zuberoara joateko eguna zen, motxilak bizkarrean genituela gertu geunden autobusa hartu eta gure planak egi bihurtzeko. Autobusa iritsi

bertan zeuden zahar guztiak aurrea hartu ziguten eta, beraien gaixotasun eta min guztiak bat-batean ahaztuz. Azkenik, iritsi ginen gure helmugara.

Autobusetik jaitsi eta kanpina non zegoen arrastorik ez geneukan; gizonetako edadetu batengana jo genuen. "Aizu, barkatu, badakizu non dagoen Pirineo kanpina?" Ez genuen eman zigun erantzunik espero. Bere furgonetan eraman gintuen, hori tipo jatorra hori.

Beraz, zer? Gazte denok txarrak eta zaharrago guztiak onak? Ala, zaharrago guztiak txarrak eta gazte denok onak?

LABUR

Liburutegiko txartelek akats beldutela ohartu dira

Udal Liburutegiak orain gutxi banatu ditu bazkide artean txartelak. Txartel horrekin sistema nazionalarekin sarean dauden liburutegietan hartu ditzakegu libururak. Orain, baina, ohartu dira txartelak akats txiki bat dutela eta liburutegian berri emango dizkiete bazkide txartel berriak.

EHEkoek 140 bat sinadura batu dituzte dagoeneko

EHE taldeko kideak sinaturak batzen ibili ziren aurreko asteburuan, osasun zentzuzko euskalduna eskatzeko sinadura batu zituzten orduan. Asteazkenean zehar sinaturak jarraitu dituzte beste 40 bat lortu dituzte. Dena den, asteotan ere lan hori jarraituko dute.

Arrolakoak eskiatzera doaz asteburuan

Oraingo asteburuan egongo du Arrola mendizale elkarrekin ak urteko lehen irteera. Bide danchura joango dira, eskiatzera. Bihar, hilak 29, irteerak dira, 05:30ean, eskola onenetik, eta domekan itzuliko dira 47 lagun doaz, guztira. Oso bukaeran egingo dute hurrengo irteera; Antzuolari irteerak egingo diote orduan.

Anelkarrek hiru urteotako txostel egingo du

Anelkarrek hiru urteotako txostena egin du eta datuak asteotan banatuko du hurrengo etxeetan. Hantxe jaso dituzte hiru urteotan egindako txostelak, jasotako dirua, diru zertarako erabili duten diru abar. Azkeneko txostena hurrengo urtean egin zuten.

FUTBOLA

Gazteek irabazi egin dute igoera faseko lehendabiziko partidua

A.I.
Partidu interesgarria jokatu zuten gazte mailako taldekoek Estalan, zapatu arratsaldean. Alde batetik, igoera faseko lehendabiziko partidua zelako, eta bestetik, derbya zelako, Bergararen aurkakoa. 2-0 nagusitu ziren etxekoak eta hiru puntu eskuratu zituzten.

Denboraldi ona egiten dihardu Antzuola Kirol Elkarteko gazte mailako taldeak. Hilaren 16an bukatu zuten liga gazteek, eta hilaren 23an igoera fasea jokatzeari ekin zioten.

Euren taldean hirugarren tokian sailkatu ziren antzuolarrak, Bergararen eta Ekintza taldearen ondoren. 25 puntu lortu zituzten antzuolarrek, Bergarak eta Ekintzak baino puntu bat gutxiago bakarrik. Ligan jokatutako hamabi partiduetatik zortzi irabazi, hiru galdu eta bat berdindu zuen Antzuolak. 43 gol egin zituzten eta 25 jaso.

Gauzak horrela, igoera fase-rako sailkatu ziren AKEko gazteak, eta aurreko asteburuan jokatu zuten fase horretako lehendabiziko partidua; ligan lider geratu zen Bergararen aurka, hain zuzen



Igoera faseko lehen partidua irabazi egin dute.

ere, jokatu zuten lehenengo partidu hori, eta irabazi egin zuten, 2-0. Horrela jarraitzen baldin badute, gazteen lehen mailara igotzeko aukera dute.

ERREGIONALAK KOPAN
Erregionalek, berriz, hilaren 16an ekin zioten fase berriari; kopa jokatzen dihardute, ez ziren eta igoera faserako sailkatu.

AIHERRA-ANTZUOLA

Aiherrakoekin harremanetan

A.I.
Urrian ospatu genuen Aiherra eta Antzuola senidetu zireneko 20. urteurrena. Herri osoak parte hartu zuen jai hartan, eta orduan jarritako helburuetako bat zen bi herrien arteko harremana indartzea. Helburu horrekin, Aiherrako eta Antzuolako Udaletako arduradunek eta Aiherrako Beltzuntze elkarte-kideek harremanetan jarraitu dute.

Gabonak aurretik batzarra eta afaria egin zuten Aiherran, Aiherrako eta Antzuolako Udaleko arduradunek 2005. urterako hainbat ekitaldi antolatzekeko pro-

posamena aurkeztu zuten. Uda-berri aldera berriro elkartzeko asmoa dutela azaldu zigun Inigo Ramirez de Okariz kultura zinegotziak. Neguan baino udaberri aldera, eguraldi hobearrekin ekitaldiak antolatzea hobe izango delakoan.

Udalaren nahia da bitartekari lana egitea, baina, Lasterkaldiarekin bezala, protagonismoa herriarrek izatea.

Horrela, herriko taldeek eta elkarteek Aiherrakoekin harremanak sendotzeko ekimenak abiaraztea izango litzateke Udalaren helburua, hala nola, Arrolak, Olalde edota Herri Ikastetxeak.

LABUR

Olalde elkarteko pilotariak Udaberri saria jokatzen hasi ziren aurreko asteburuan

Aurreko asteburuan jokatu zituzten Udaberri sariako lehendabiziko partidua Olalde elkarteko pilotariak. Ondo hasi zuten, gainera, txapelketa hori. Kadeteek 3 eta 22 irabazi zioten Lasarteko bikoteari; nagusiek, berriz, etxean jokatu zuten Bergararen aurka eta 22 eta 11 nagusitu ziren. Pala motzeko bikoteak, berriz, oraingo asteburuan jokatuko du lehenengo partidua.

ELKARTASUNA

Kanpo zorra ezabatzearen alde, sinadurak

A.I.
Anelkarrek sinadurak batuko ditu Legegintzako Herri Ekimenak egindako deialdiari jarraituz. Helburua da Legebiltzarrak herri txiroetuekiko elkartasun gutuna onartzea.

Kanpo zorra ezabatzearen alde, Bidezko Merkataritzaren alde eta eragastu militarren aurka egiteko, irratiz sortu zen Legegintzako Herri Ekimenaren izeneko plataforma. Plataforma horren helburua da Txi-

rótutako Herrialdeekiko Justizia eta Elkartasun Gutuna onartzea Gasteizko Legebiltzarrak. Lege proposamena aurkeztuko du Legegintzako Herri Ekimenak Legebiltzarraren aurrean; horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak hainbat konpromiso eta akordio har ditzala eskatzen da. Proposatutako legearen bitartez, nazioarteko harremanetan ematen diren injustiziarik eta elkartasun ezari aurre egin eta gure Lurraren garapen jasagarri eta orekatu baten alde lan egitea eska-

tzen zaio Jaurlaritzari. Horrela, sentsibilizazio kanpainak bultzatzea eta neurri eta konpromiso zehatzak aurkezteko nahi dute.

Aipatutako lege proposamena Legebiltzarrean aurkezteko beharrezkoa da 30.000 sinadura batzea.

ANTZUOLAN SINADURAK BATZEN
Anelkarrek ere parte hartuko du sinadurak batzen. Otsailaren 5ean, zapatua, San Blasaren egongo dira. Hurrengo egunean, berriz, Aratusteetako domekan, Herriko Plazan jarriko dute sina-

durak batzeko mahaia.

Sinadurak batzeaz gain, Boli-viako produktuak salgai jarriko dituzte mahaian. Eguzkitza baserriko Purita Arregi Bolivian egon da irakasle bi urtez, eta berak ekarritakoak dira produktuok.

Bestalde, eta sinadurak batzeko ekimenarekin lotuta, hitzaldia ere antolatu dute Anelkarkoek. Martitzenean, hilak 1, izango da hori, Olanaren etxean, 19:00etan. Legegintzako Herri Ekimeneko kide Josetxo Rivierek egingo du berbaldi hori.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Urtarrilak 29
12:00: Antzuola-Urki (Neskak)

PILOTA
Urtarrilak 29
17:00: Olalde-Mundarru (Kadeteak)
Ondoren: Olalde-Landare (Pala motza)

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 2 Bergara 0 (Gazteak)
Antzuola 0 Gasteiz 7 (Neskak)

PILOTA
Olalde 22 Bergara 11 (Nagusiak)
Lasarte 3 Olalde 22 (Kadeteak)

EGANA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LEKY-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94 ANTZUOLA

ABAD
DEKORAZIOA
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa: 943 76 60 19
INDUSTRI MANTENIMENDUA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko urtarrilaren 28a / 214. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Protokoloa gertatu du Udalak elur egunetarako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Elurak hainbat buruhauste sortu ditu azken egunotan. Udalak protokolo bat gertatu zuen elurra egiten duen egunetarako, eta asteon ipini du abian. Udalak egin beharreko ekintza nagusiak zehaztea eta zerbitzuak hobetzea dira protokoloaren helburuak.

Elurra egingo duen abisua SOS Deiek eman arren, iragarritakoa beteko den edo ez jakitea zaila da. Baina elurra egingo balu, lehenengo urgentziatzko mahaia elkar-tzea adostu dute Udalean.

Egunotan, Udaleko langileak, zinegotziak eta alkatea elkartu eta egin beharrekoa zehaztu dute.

Orain artean, elur egunetan aurreikuspenik gabe egiten zituzten lanak eta arazoak etorri ahal konpondu. Protokoloarekin, bakoitzak egin beharreko lanak koordinatu dituzte.

MAKINAK

Udalak elurra kentzeko makina dauka eta herritar baten laguntza ere izaten du beste makina batekin. Horrez gain, errepide nagusiak Foru Aldundiko makinak garbitu dituzte.



Egunotako elurtea dela eta, abian ipini du Udalak protokoloa.

Hasteko, herriko kaleetan pilotutako elurra kendu dute eta baita industria-guneetakoa ere. Bestalde, gatza bota dute kaleetan. Baina pilotutako gatza nahikoa ez eta eskaria egin behar izan du horren ardura hartu duen langileak egun hauetan.

Errepidean arazo batzuk izan arren, langileak iritsi dira lantegietara. Hala ere, argirik eta tele-

fonorik gabe egon dira hainbat unetan, eta horrek izan du eraginik. Umeak asteazkenean ez ziren eskolara joan, esaterako.

Udalak hartu duen beste neurrietako bat da herritarrei elur arriskuaren berri ematea eta baita ere jakinaraztea nahi izanez gero udaletxean palak utziko dizkietela norberaren atariko elurra kentzeko.

Gaztetxetik sagardotegira

Gaztetxeok antolatuta Hernanira egin zuten irteera zapatuan hainbat elgetarrek. Autobusean joan eta Hernanin bertan bueltatzea eman ostean, Otsu Enea sagardotegian egin zuen afaria 30 laguneko taldeak. Jana eta edanaz gain, kantu eta musika ere ez zen falta izan Elgetako gazteen inguruan. Izan ere, gaztetxeokin batera Elorrioko trikitilariak joan ziren Hernanira. Sagardoa ona zegoela esan digute eta datorren urtean ere antolatuko dutela irteera./I.A.



EUSKARA

Korrika laguntzaile kanpaina abian da

I.A.

Martitzenean elkartu ziren Korrika batzordeak deituta hainbat elkartetako ordezkariak eta norbanakoak aurtengo Korrika dela eta ekitaldiak antolatzeko.

Ideiak mahai gainean ipini arren zehazteke daude, eta datorren martitzenean batzarra izango da 20:00etan liburutegian.

Hala ere, Korrika laguntzaile egiteko kanpaina abian da euroren truke pina eta txarriak jaso daitezke Haizean, Espalio Gaztetxean eta Eskolan, eta horien beharpenak izango dira Herriko 300 komertzioetan.

Martxoaren 16an pasatuko da Korrika Elgetatik; eta herriko kilometroak erosteko prest direnak zein diren ikusi behar da.

JAIK

Inauteriak eta Santa Ageda Eskolan

I.A.

Ospakizunez betea dator astea Eskolako umeendako. Eguaztenez San Blas opilak egingo dituzte ikasleek, nahi duenak hurrengo egunean bedeinkatzera eramateko.

Egubakoitzean, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera izateaz gain, Inauterietako Barikua Gizona ere bada. Hori dela eta, hainbat ospakizun egingo dituzte umeek eta irakasleek.

Goizean, 10:00etan hasita, Santa Agedaren omenez koplak kantari eta eskean ibiliko dira herriko kaleetan.

Arratsaldean, 14:30ean Inauterietako kalejira egingo dute moztutako. Ondoren, plazara joan dantzari saioa eskainiko dute. Eguraldi txarra eginez gero Espalioan egingo dute ekitaldiak.

Horrelako jaietan ohiko moduan askari berezia izango da umeendako Ozkarbi elkarteak eta 17:30erako altxorraren jokoa antolatu dute. Eguraldi lagundu ezean, bestelako jokoak izango dira pilotalekuan.

Oñatiko Oinatz dantza taldeak kalejira egingo du 20:00etan gero Luzaide dantza plazan. Eguraldi txarra eginez gero Espalioan izango da.



Eskolako umeak Santa Ageda eskean irtengo dira goizez eta moztutako g

KIROLA

Debagoieneko Kirol Txapelketa Zirkuituaren jaia zapatuan

I.A.

Bihar, zapatua, Elgetan elkartuko dira Debagoieneko Kirol Txapelketa Zirkuituko parte-hartzaileak eta antolatzaileak denboraldiko azken jaia ospatzeko. Hainbat jolas egin ostean, aukera aprobetxatuz hasi berri den urteko Kirol Zirkuitua aurkeztuko dute.


Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta Kirol Txapelketa Zirkuitua izaten da urtero Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran, Antzuolan, Oñatin eta Elgetan,

Tenisa, frontenisa, esku pilota, squash eta pala dira aukeratutako kirolak, eta bakoitzeko bi txapelketa izaten dira urtean. Elgetan, esku pilotakoa eta palakoa.

Abenduan, sailkapeneko lehenengo zortzi sailkatuek masterra jokatu dute zirkuituko irabazleak zein diren erabakitzeko.

JAIA ELGETAN ZAPATUAN

Kirol Zirkuituko azken jaia aurtun Elgetan egingo dute. Bihar,



ESKU PILOTA TXAPELKETAKO FINALERDIA ELGETAKO UDAL PILOTALEKUAN.

zapatua, goizez. Masterretako irabazleak daude gonbidatuta jaira.

10:00etan kirol jolasak egingo dituzte. 12:30ean squash, tenis eta frontenisko sariak banatuko

dituzte. 2005eko Kirol Txapelketa Zirkuituaren aurkezpena egingo dute ondoren eta 13:00etan partaide guztiendako luntxa egongo da Bolatoki tabernan.

ERAKUSKETA

Inauterien gaineko akuarelak Espaloian

I.A.

Etzoz Gandariasbeitia bilbotarraren akuarelak ikusgai daude Espaloian. Urtarrilaren 26an zintzilikatu zituzte margolanak eta otsailaren 6ra bitartean egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, 11:00etatik gauera arte.

Euskal Akuarelisten Elkarte-kidea da Etzoz eta 15 urte daramatza akuarelak margotzen.

Euskal Herriarekin zerikusia duten gaiak margotzen dituzte batez ere. Baita abstraktuak eta karikaturak ere. Elgetan Inauterietako 17 akuarela egongo dira.

ERAKUSKETAK

Hemendik aurrera erakusketa gehiago ipintzeko asmoa dute Espaloian. Hurrengo Antonio Irisarriren argazki erakusketa izango da.



EUSKAL HERRIAREKIN LOTURA DUTEN GAIAK MARGOTZEN DITU BATEZ ERE GANDARIASBEITIAK.

HERRITARREN HITZA / Beatriz Zabalondo · Itzultzailea

Euskal gatazka

Kostako herri honetan, emakume batek burua lore batekin apainduta ibiltzen du urte guztian; egunero ez bada, bi egunetik behin aldatuko du, eta ahal dela, sasoiaren sasoiak aukeratuko du eskuineko belarrian kokatzeko; beti ere, naturala. Eta halaxe, dagoen tokian dagoela. Arantza du izena.

Joan zen zapatuan, gaueko ordu txikietan kalean topo eginda, diosku koadrilari: "Euskal gatazkaren arazoa ez da ez politikoa, ez militarra: euskal gatazkaren arazoa sexuala da".

Hamaika gerra pasatutakoa dela jakinda, sinetsi ez, ba, guk!

Joan deneko berrehun urtean euskal arazo larriena izan denaren alde zertxobait egiteko aukera geneukan esku-eskura, antza.

Behingoz, demokrazia herritarren erabakigunean, eta gu kausa noble baino nobleagoaren protagonista zuzenak izateko bidean.

Batzuren batzuk "sukalderlanetan" ondo moldatzen dira,



"Mojetan aipatu ere ez ziguten egin gatazkak sexu praktikaz konpontzen zirenik"

gero! Han non hasten zaigun laguna negoziazio mahaia atontzen: "Hau Mieltxo dun, Ordiziakoa, majomajoa eta langile fina, kontu korronte beroa eta lan finkoa daukana": Musu-gorri begiratu zintzoko gizonezko dotore bat. Nola geratu hitz erditxo bat saiatu gabe!

Grina bizi batek bultzatuta, elkarrizketari ekin genion. Norbaitek hitz egindakoan, hari begietara begiratu eta

abegitasuna erakutsi behar zitzaioela ikasi genuen umetan mojetan. Gu, nola ez, zenbait "plaza-gizonek" ematen ez duen neurri hori gainditzeko prest agertu ginen.

Halako batean, "negoziario" gorienean, zuk hau eman eta nik bestea hartu, iritsi da desarmearen gaia. Eta bat-batean, Fragarren itzal luuuuu-zea aurrez aurre: "Nik ez dut inoiz txanorik jantzi".

Akabo! Eskola zaharrekoak edonon. Orduan akordatu nintzen, mojetan aipatu ere ez zigutela egin gatazkak sexu praktikaz konpontzen zirenik.

Arantza, hurrengo, Erromako mahairako deia egin beharko dun.

LABUR

Bolo txapelketa antolatu dute zapatu gaurako

Gabonetako Txapelketa jokatuta eta atseden hartu ostean, beste bolo txapelketa bat antolatu dute Elgetan. Bihar, zapatua, izango da bolo jokoa Bolatoki tabernan, 23:00etan hasita. Parte hartu nahi duenak nahikoa du egunean bertan hara joan eta dagokiona ordaindu. Lau sari izango dira jokoan: lehenengoak jasotako diru guztiaren %40 irabaziko du, bigarrenak %25 eta hirugarrenak eta laugarrenak batutakoaren %15 eta %10, hurrenez hurren. Elgetan eta inguruetan zaleak izanik, jendea joango dela uste da.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

ILE APAINDEGIEN GIDA

JUAN MANUEL AGIRREZABAL/PEPELU ILE APAINDEGIKOA

'Bizartegiak tradizio handia izan du gure familian; nirea hirugarren belaunaldia da'

Zenbat urte daramatzazu orrazten?

Hogeita bost urte daramatzat gizonezkoen ile apaintzaile. Gure aitona Plazentian zabaldu zuen bizartegia eta gero gure aitak jarraitu zuen ofizioarekin. 16 urte nituela aitarekin hasi nintzen lanean. Orain dela 17 urte zabaldu nuen Bergaran bizartegia. Bizartegiak tradizio handia izan du gure familian; nirea hirugarren belaunaldia da.

Moda jarraitzaileak zara?

Bai, gure ofizioan ezinbestekoa da moda jarraitzea, gure lanbidean ezin zara atzean geratu, beti jakin behar duzu zer dagoen boladan. Nik lan egiten dudan etxeek ikastaroak antolatzen dituzte Donostian, eta ni bertara joaten naiz azken orrazkera eta produktuen berri jakitera.

Ilea, motza ala luzea?

Nire bezeroek normalean ile motza eramateko joera dute, erosoagoa delako.

Zer-nolako bezeroak dituzu?

Denetarikoa bezeroak ditut: umeak, gazteak eta nagusiak.

Jendea ausarta da?

Jende gaztea nagusia baino ausartagoa da; dena dela, kosta egiten zaie orrazkera berriak egitea. Jendeak zaintzen du ilea?

Gizonezkoen artean ilea zaintzeak ez du garrantzi handirik eduki orain arte. Gehienek ez dute produktu berezirik erabiltzen ilea zaintzeko. Emakumeen kontua izan da gehiago. Dena dela, gazteak hasi dira ilea gehiago zaintzen.

Aholkurik ematen duzu?

Ba, normalean aholkuak ematen dizkiet. Nik orrazkera bat egiten diet eta orrazkera nola eraman dezaketean aholkatzen diet.



Juan Manuel Agirrezabal 'Pepelu'

Zer dago boladan? Zer egiten duzu gehien?

Orain gehien eramaten den orrazkera kokote motza eta buru gaina luzea da. Bezero batzuek kolorea eta metxak egitea ere eskatzen didate. Ilea zer bait esaten du pertsona bati buruz? Ilea izaeraren ispilua da?

Bai, ileak badauka lotura janzkerarekin eta baita pentsaera konkretuekin ere.

Bezeroek lagatzen dizute nahi duzuna egiten ala ideia garbiekin etortzen dira?

Normalean ideia garbiekin etortzen dira, aldaketa handirik egitea ez zaie askorik gustatzen. Aldaketaren bat egitekotan poliki-poliki izaten da. Ilea apaindegia bakarrik ala beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?

Ile apaindegiaz gain bizartegia ere bada, bizarra mozten dut, ilea labanaz ere mozten dut eta bibotea ere konpontzen dut. Bizarra moztera oso jende gutxi etortzen da, luxua delako. Lehen, aldiz, domekero joaten zen jendea bizarra moztera. Bezeroarentzako bizartegian bizarra moztea bezalakorik ez dagoela uste dut.

Pepelu

Zurradero 2- Bergara • 943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

Aukera onenak

ADATS

Herri lagunak 4 - Bergara
943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

AMPARO
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Boni Laskurain 2 - Bergara
943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

BEROTZI

PELUQUERAS

D. Fleming 5 - Bergara
943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

disdira

ileapaindegia

Masterreka 7 - Bergara
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloreetan

IDOIA

Espoloia 4 - Bergara
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

ileak

Ozaeta 3 - Bergara
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

San Pedro 23 - Bergara
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

KIZKUR

Bolu 51 - Bergara
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6 - Bergara
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar
ILEAPAINDEGIA

Ibargarai 42 - Bergara
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Sanchez
ile apaindegia

Fraiskozuri 4 - Bergara
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea